



AFRIKAN ZEHAR EGINIKO BENETAKO BIDAIA

Hiru billabonatar Afrikako lurralde desberdinetan izan dira hainbat hilabetez, hango bizimodua ezagutzuz > 4-5

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2009-01-07**

VIIURTEA 1.596 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



A. IMAZ

THAMER BIRAWI PALESTINAR EUSKALDUNA

«Ezingo dute palestinarrok bakean bizitzeko daukagun nahia zapuztu»

TOLOSA Ezintasunaren amorruekin bizi dela Tolosan dio, «ezin baitut hemendik egin dezakeguna baino gehiago egin» 6



Txapelketa osoan bezala, atzo ere jende ugari izan zen harmailetan. AIMAZ

Ikusle ugari eta giro polita izan dira nagusi Shanti Txapelketan

TOLOSA Atzo jokatu zituzten finalak lau maila desberdinetan, Usabal kiroldegian 3

Behar-Zana taldeko Jon Erasunek irabazi du Gipuzkoako Txapelketa

VILLABONA Pilota taldeko kideek maila ona erakutsi dute; Ormazabal izan da bailarako onena 3

Herritar ugari atera da kalera euskal presoen eskubideen alde

AIZTONDO Villabona, Aduna, Zizurki, Larraul eta Alkizako Udalek deituta manifestazioa egin zuten 2



Salmenta puntuak:
Tolosako
OSKI arropa dendan
Leitzako
TORREA tabernan
eta HITZAren Tolosako
eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak
jertseak • fularrak
buffak...

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info



Kimetz

Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96

Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 82

www.kimetz.eu

700 euskal presoen eskubideen aldeko oihua



Jende asko bildu zen Villabonan giza eskubideen alde agertzeko. HITZA

Villabona » Aiztondoko bost udalek giza eskubideak bermatzearen aldeko mozioa onartu eta manifestazioa egin zuten.

ERREDAKZIOA

Aiztondo bailara osatzen duten Villabonako, Adunako, Zizurkilgo, Larraulgo eta Alkizako Udalek euskal presoen giza eskubideak bermatzearen aldeko manifestazio jendetsua egin zuten abenduaren 31n Villabonako Errebote plazatik abiatuta. Manifestazio isila izan zen eta bertan une honetan 700 euskal preso daudelagoratu eta salatu zuten. Manifestazioa orain gutxi aipatu udalek onartu-

tako mozioaren harira antolatu zuten. Horiak horrela, antolatzaileek «presoen gehiengo izugarria, %98,5» Euskal Herritik kanpoko espetxeetan daudela esan zuten, «Espainiako eta Frantziako Gobernuek ezartzen duten sakabanaketa politikaren ondorio» dena, gaineratu zuten. Sakabanaketa politika honek «preso dauden lagunen bizi baldintzak gogortzen ditu eta zigorra senide eta inguruko pertsoneri zabaltzen» diela ere nabarmendu zuten.

Senide eta lagunak

Politika honek lagun eta senideei ekartzen dieten «esfortzua» ere azpimarratu zuten, izan ere espetxeetara joateko bide luzea egin behar izan dute askotan eta honek

«denbora galerak zein galera ekonomiko latzak sortzen dizkie». Horiak horrela, Espainiako zein Frantziako Gobernuetako presoek duten «tratu duin eta begirunezkoa jasotzeko eskubidea» aldarrikatu zuten, horrela «tortura eta tratu krudelak» gaitzetsiz, «isolamendua eta jipoiak» salatuaz eta beren nazio zein kultur indentitatearekiko begirunea eskatuz. Presoen osasun, komunikazio, hizkuntza, hezkuntza, ama eta aitatasun eta askatasun eskubidea ere aldarrikatu zituzten. «Euskal Preso Politikoen Kolektibo gisa, Euskal Herrian eta elkarrekin bizitzeko eskubidea» ere ekarri zuten gogora. «Gure egiten dugu, beste behin ere, euskal presoak Euskal Herrira oihua», gaineratu zuten.

Tortura kasuak ere salatu zituzten

VILLABONA » Abenduaren 31n, Villabonan, euskal presoen egoera salatzearekin batera «Euskal Herrian izaten diren tortura kasuak» ere gaitzetsi zituzten. «2008ko abuztutik hona, lau eguneha behin euskal herritar bat torturatua» izan dela gogoratu zuten eta «nahiz eta komunikabideek isilarazi, Espainiar Estatuak euskal militanten aurka darabilen estrategia» dela nabarmendu zuten. HITZA



Laburrak

Alpino Uzturreren iraupen eskiko ikastaroa

TOLOSA » Alpino Uzturrek iraupen eskiko ikastaroa antolatu du hilaren 17 eta 18ra 1995tik 1998ra bitarte jaiotako gazteentzat. Larunbatean 07:15ean aterako dira Tolosatik. Interesatuak 685 776 504 telefonora deitu behar dute.

Oargi elkartearen urtarrileko irteerak

TOLOSA » Oargi Mendi elkarteak urtarrilean egingo dituzten irteeren berri eman du. Hilaren 17 eta 18an Formigalerako eski irteera izango dute eta hilaren 23 eta 25ean, aldiz, Collarada eta Pic d'es Moinesera joango dira.

Helduen liburutegiak ordutegia zabalduko du

TOLOSA » Tolosako Helduen Liburutegiak 2009an zehar hiru alditan 09:00etatik 20:00etara zabaldu du bere ordutegia. Zehazki, hilaren 17tik otsailaren 6ra, maiatzaren 25etik ekainaren 30era eta irailaren 1etik 11ra.



Erregeek pozik utzi dituzte denak

TOLOSA » Urtebete itxaroten egon eta gero atzo goizaldean guztiek, edo askok behintzat, jaso zituzten Errege Magoek utzitako opariak. Haur eta gaztetxo asko atera ziren kalera jasotakoekin jolastera, nahiz eta eguraldia ez zen egokiena. Seguru, orain, datorren urtekoaren zain daudela, bien bitartean, jasotakoarekin disfrutatzea izango da onena. R. CALVO

Haur eta helduentzako ikastaroak

Zizurkil » Haurrek marrazketa, euskal dantza eta dantza moderno ikastaroak izango dituzte urtean zehar.

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak ikastaro desberdinak antolatu ditu urte honetarako haur zein helduentzako. Tutoretza orduak ere izango dira,

gaurtik hasi eta hilaren 21a bitarte 16:00etatik 18:00etara. Horiak horrela, haurrek marrazketa ikastaroa izango dute astelehenean (20 euro), euskal dantzarena asteazkenetan (45 euro) eta dantza modernoa ostiralean (45 euro). Helduek aldiz eskulanak izango dituzte asteartean (50 euro) eta patchworda asteazkenetan (50 euro). Iriarte Etxean eskulanak egiten ikasteko aukera ere izango da ostiralean (50 euro).

Altzariak zaharberritzen ikasteko aukera

Alegia » Ikastaro desberdinetan parte hartzeko epea bihar hasiko da eta hilaren 19ra arte luzatuko da.

ERREDAKZIOA

Alegiako Udalak, Aulas Kutxa 2009 ekimenaren barruan, hainbat ikastaro abiaraziko ditu hasiberri den urte honetan. Batetik,

soinketa landuko dute pilates metodoaren bitartez bi maila desberdinetan banatuta eta bestetik, baina-lanetan edota altzariak zaharberritzen aitzeko ikastaroak ere antolatu dituzte. Izen emateko epea bihar hasiko da eta hilaren 19ra arte luzatuko da. Internet bidez egin daiteke, www.kutxasocial.net helbidera sartuta edota 902540040 zenbakira deituta. Informazio gehiago nahi duenak Kultur Etxerajobehar du.

Giro polita eta jende ugari izan da Eguberrietako Shanti Txapelketan

Kirola » Atzo jokatu zituzten finalak, alebin eta infantil mailako neskek eta mutilek Usabal kiroldegian.

ERREDAKZIOA

Urtero sasoi honetan egiten duten moduan, Eguberrietako Shanti areto-futboleko Txapelketa izan da aurten ere makina bat gazte-txok parte hartu dutelarik. 27 txapelketa izan da aurtengoa, eta atzo, Errege Egunean, jokatu zituzten finalak Usabal kiroldegian.

Lau mailetako finalak izan ziren ikusgai. Alebin nesketan, Oiarzabal (Tolosa) taldea izan zen txapelduna, Margok (Tolosa) taldeari 1-3 irabazi ostean; alebin mutiletan,



Finalak amaituta sari banaketa egin zuten. Nekati Realeko jokalaria ere izan zen bertan. A. IMAZ



berriz, Suzko Deabruak (Tolosa) taldea izan zen irabazlea, Ipopotamoak (Tolosa) taldeari 5-3 irabazi baitzieten; infantil nesketan, Intxurrek (Alegia) 3-1 irabazi zuen Barela (Tolosa) taldearen aurka; eta infantil mutiletan, Aurrera (Leitza) izan zen irabazlea, Intxurreren (Alegia) aurka 3-1 irabazita.

Atzokoan finaleko partidak jokatu zituzten, eta ondoren, sari banaketa ere egin zuten. Jende ugari izan zen Usabal kiroldegian partidak ikusten, eta giro polita izan zen; hori dela eta, antolatzaileak gustura azaldu dira, izan ere, «finalean ezezik, txapelketako beste egunetan ere jende ugari izan da harmailetan». Batez ere, benjamin mailakoan partidak ikustera guraso asko joaten dela ere aipatu dute; «maila horretan ez dugu txapelketarik egiten, baina partidak egiten dituzte, eta guraso ugari etortzen da euren gazte txokak futbolean nola egiten duten ikustera».

Aurtengo txapelketan 64 taldek hartu dute parte denera.



Pasa den igandeko txapelketaren une bat. HITZA

Josu Mujika ibartarra txapeldun xakean

ERREDAKZIOA

Pasa den igandean, Aurrera elkarrekin antolatuta, xake azkarreko XXII. J.A. Intsaustiren omenezko Txapelketa jokatu zen. 27 jokalarik hartu zuten parte. Oso lehia polita ikusi ahal izan zen, maila onetako, eta azkenean, Josu Mujika ibartarra gailendu zen.

Sabino Etxeberria tolosarra bi-

garren postuan geratu zen, eta hirugarren Xabier Mujika ibartarra izan zen. Parte-hartzaile gazteen zentzuan ere sari ugari egon ziren. Oihana Etxenike anoetarrak kadete onenaren saria irabazi zuen, Igor Mendizabal alegiarrak alebin onenarena eta Imanol Aldazabal ibartarrak txapelketako sari berezia jaso zuen.

Behar-Zana taldeko Jon Erasun izan da Gipuzkoako Txapelduna

Villabona » Behar-Zanakoek oso emaitza onak lortu dituzte; Ormazabal bailarako onena izan da.

ERREDAKZIOA

Emaitza onak lortu dituzte Behar-Zana pilota taldeko kideek. Izan ere, Jon Erasunek Gipuzkoako txapelketa irabazi du, Ormazabal bailaran irabazle izan da, Maiz azpitxapeldun eta Lizaso Altzako finalean lehiatuko da.

Infantilen lehen urteko banako txapelketaren finala abenduaren 27an jokatu zuen Jon Erasunek, eta garailea izan zen, 8-2 eta 8-3ko emaitzarekin.

Hilaren 30ean, Aitor Ormazabalak Artzaire lehen saria irabazi zuen Tolosaldea-Debaldea-Goierria bailetako azpitxapelketan 2. urteko infantilen mailan.



Jon Erasun garaikurrarekin. HITZA

Lehenengo urtekoen bailarakoan, berriz, Eneko Maizek, bigarren postua lortu zuen.

Honetaz gain, Iñaki Lizasok Altzako Gabon torneoko finala jokatze sailkatu zuen, Irureta Beasaindarrarekin, finalerdian Ollor Mariñelarena bikoteari 22-16 irabazi eta gero.

Euskadiko Pilota Ligako partidak, larunbatean eta igandean, Amezketan

ERREDAKZIOA

Bost pilota talde ariko dira lehia Euskadiko ligan, eta lau partida baino gehiagoko jaialdirik antolatzetik ez dagoenez bi egunetan banatuko dituzte partidak. Hala, larunbat honetan, hilaren 10ean, Amezketako Larrunari pilotalekuan, 16:30ean ondorengo ariko dira: eskuz binaka, Zazpi iturri-Zaramaga (kadeteak); eskuz banaka, Zazpi iturri-Upo mendi (kadeteak); eskuz banaka, Zazpi iturri-Lemoa (nagusiak);

Hurrengo egunean, hau da, hilaren 11n, ondorengo partidak jokatuko dituzte Amezketako Larrunari pilotalekuan, 16:00etatik aurrera: lehendabizi eskuz binaka, Zazpi iturri-Bi aizpe (22 urte azpitxoak); eta bigarren partida, eskuz binaka izango da, Zazpi iturri-Adiskide (nagusiak, ohorezko maila) taldeen artean.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Hainbat lekutat jasotzen zuten afrikarren berotasuna eta kulturalkatea ere. Argazkian, Maliko hainbat lagunek agur egiten furgonetarekin aurrera egiten zutela.

AFRIKAREN DEIADARRA

Villabona » Hiru billabonatar Afrikara abiatu ziren, presarik gabe, hainbat herrialde eta bertako bizimodu ezagutzeko. Benetan bidaiatzera.

MANOL GARCIA

Beretako bidaiak egitea zen helburua eta Afrika izan zen aukeratu-tako lekua. Onditza Jauregi eta Nahikari turbe billabonatarak aurti hilabetez kontinente beltza zeharkatzen aritu ziren. Lau hilabetez Luisa Montecelo billabonatarra ere bidaiatzen izan zuten. Hiruak bizipen oso berezia izan zuten herrialde egokidatu bidaiari.

«Herengo» bizimodu petral hoinekin nazkatuta goenduen, dio Jauregi. «Gauza material ugari daude, baina bihotzak ez daude hain betetsa. Beste bizimodu mota bat ikusteko sentipena abiapuntu hartuta, Afrikako hainbat herrialdeetan izan ziren. Bilbidea Marokon hasi zuten, gero Mauritania, Mali, Burkina Faso, berritri Mali, Guinea, Senegal, Mauritania eta Marokon bukatu zuten bidaiak. 20.000 kilometro pasan egin zituzten.

«Etaina eta urria arteko hilabete akurituak izan dira. Afrikaren horregatik urriaren bukaeran ekin zioten bidaiari, 2007an. Zer nola-

nen». Aurretik bilbidea pentsatu-tabazuten ere, gero, bertan, bidaiatzen ari zirela, pentsamenduko ez zuten bako. «Gure alde genuen zer-hait denboragenuela. Presarik ez izateak inprobisatzeko ahalmen hori ematen zieten eta eskasago sentiarazi ere erabakiak hartzeko. Benetako bidai bat egiteko.

«Egunen eguneko egiten genuen. Afrikarrak bezala bizitzen saiatzen ginen». Afrikara sartu zirenean, bertako bizimoduak bizitza zuten helburu. Errepideak berak askotan horretara bultzatzen zieten, gainera: «Magan ikasten genuen 200 kilometroko errepide bat eta pentsatzen genuen lau orduetan egingo genuela. Baina gero egiten hasi eta agian ezta egun batenean ezez ginen hitse». Inprobisatzeko aukera handirik ematen ez zuten bisak izaten ziren. Herrialde bategi bestera igazten zirenak, aurrekio oraindik behar izaten zirenak.

Gurpilak aldatzen adituak
Hainbeste kilometro egitera joango zirela jakinda, ez zuten espero furgoneta berarik in zuzailko zela. Furgoneta zaharra zen, baina bidaiariek baina urte gartxago zituzten, «gartzera» deitzen zioten. Bidai guztia aguantatu zuten bilgailu-

luak, baina gurpilena beste kontu bat izan zen.

«Gurpilak askotan lebertu ziren. Hogei gurpiletik gora aldatu genituen bidaiari eman genuen denboran». Ondo ikasi zuten, berriz, gurpilak nola aldatu. «Ahal zen merkeena erosten genuen, hobe bigarren eskukoak bazen». Beroa izaten zen gurpiletako arazorik handiena. Gurpiletako

Afrikarrak bezala bizitzen saiatzen ziren. Bertako bizimoduz bustitzea zuten helburu.

Askotan lehortu ziren furgonetaren gurpilak. Hogei gurpiletik gora aldatu zituzten bidaiari.

batetik gurtzir forma galduta zuten behin eta horren kontura egin zuten barre pikka bati.

Beste arazoetako bat gasolina hiltzaite izaten zen. Askotan botilak erosi behar izaten zituzten. «Filputa» galduta ziren hainbat lekutan eskuko gasolindegiak ikusi zituztenen. «Mambelebatetik eragiten zioten gasolina botatzen furgonetas».

Senegalen ikusi zuten turismoa-

Izan ere, errealtate batzuk kostatu egiten zitzaizkien sinistritz.

«Gauza denak fisikoki egiten zituzten». Urarena zen horietako bat. Leku batzuetan oso zaila zen ura izate eta potzetaen zirkulazio ilarrak izaten ziren ura lortzeko. Billabonatarrek ere ilaran jartzen ziren, baina bertakoek ez zieten urten berriak botilak botezaten lana egin, arraroa egiten baitzuten lanpostu etorritako botatik berriekin ur hartzen busten. Turistak bertako jendearekin egiteko aukera izaten genuen eta uraz gain hainbat biogen eraman genituen turistaz. Beraien ondoren jarri eta beraien gindik ikastea nahigenuen.

Afrikarrik jaten zuten, merkatotara joaten ziren gauzak erosten, Afrikaren jendea eraman zuten. «Afrikarrak bezala bizitzen saiatzen ginen». Furgoneta 25 lagun eraman zitezuten egun batean. «Jendea etorritzen genuen, haurrekin. Guk furgoneta eraman genituen eta beraiak irripareak oparitzen zizkiguten. Guk arazok izanzen gero odolnekin laguntzen zigen ezereen truke».

Senegalen ikusi zuten turismoa-

gerez eta jende gehiago etortzen hasi zen. Azkenean ospitalea ematen zuten. «Hor ere aldo jaso zuten afrikarregandik: «Beraiak trans-irrikarregandik».

Arropa, eskolako materiala eta sendagaik barutu eta sendaketak egiten zituzten.

Proiekzioak ematen ari dira, jendea sensibiltzatu eta Afrikaren errealtatea erakusteko asmoz.

mititzen zigiten eskertzak aso botezen zigiten. Bihotzez ematen zizkiguten askotan beraietarako beharrezkoak ziren gauzak. Ama

batetik dozena bat arrautza eman zizkigun bere haurretan tratatze-gatik eta hori beraietarako aber-entzian handia zen. Gauza oso bereziak bihurtu genuen. Persona txuri batzuk hain joan eta bere beharrei kasu egiten harrigarri egiten zituzten. «Beraien alabak begina be-zala hartzen zigiten. Maitsuna ematen zigiten garena izateagatik». Gertatu izan zirenen bilabonatarrei egun batean lau aldiz bazkaltu behar izatea, lau etxe ezberdinetan gozkatu zitzaieko.

Ahuanetan poliziaekin izaten zituzten ere tira-birak. «Garrala-riak ginela ematen zigiten eta enpresen izen jarri behar genuen ibusgai furgoneta. Ustelkeria ba-zegon, baina guk ez genuen ez-erdi indindu bidaiari osotan zehar». Po-

lizia galditzen zien eta dokumen-tazioa eskatu, baina hauek, lehen aipatu bezala, ahaztuta bat zuten, ez zitela presarik. «Pazientziaz-ekin hartzen genuen eta geldiaraz-ten zigiten lekuak jendearekin hitz egiten aritzen ginen». Neskak izateagatik ere posta elektronikoa eskarzen zieten, Marokoko poli-ziek, esaterako. Kasu horietarako aurrerik pentsatu zuten: Enrrai@hotmail.com helbidea ematen zioten.

Izan ziren herrialdeetan jende-arekin komunikatzeko frantsesa erabili zuten batez ere. Bertako hizkuntzetan ere ikasi zuten zer-bait. Zaila egin zitzaion eta er-azintzea, Afrikara joatea baina zail-ago. «Errimo aldatuta izugarria zuten», diote. «Hemen dena azka-

rrago egiten da, ez da bizitzeko denbora hartzen». Azken hilabe-tetan Afrikara egindako bidaiari buruzko proiektioek egiten ari dira. «Proiekzioaren bidez jendea sensibiltzatu eta Afrikaren erre-altatea erakustea nahigaita. Aoko ikasi genuen eta hori nahit dugu transmititu». Bere bidaiaren berri www.amafrica.blogspot.com hel-bidea ematen diote eta, bestek beste, Usarbilgo II.Argazki eta Bi-dio Lehiaketaren saria irabazi du-tela azaltzen da bertan.

Bidaiari buruz hitz egiten ezta-ten zaien, ikusten da bidaiari auzar dize ekin zirela, abentura bila. Gero, bidaiak orokulu zirela, bihotzak ireki. Eta bidai horrek emandako betirako gordeko du-tela beraienkin.



Eskeerko argazkian, senegaldar emakume bat eta Onditza Jauregi besarkatzen. Erdiko argazkian ginear bat eta eskuibako mallara.



Luisa Montecelo sendaketa bat egiten Burkina Faso herrialde batean.

Golan, Maliko hirua. Behean, Luisa Montecelo eta Nahikari turbe (zulfik) Burkina Fason.

ak indar gehiago zuela eta ez ziren eroso sentitzen ikusten zutenean turistek abenturak zituztela, or-daiaduta izan arren. «Hondartza batean toki batek aurrera joateko ordaindu behar ra zegoen. Han etxak eta beste erositzen ba-zkiz zuten. Guk ez genuen nahit ezberdintsuniki sortu eta leku horretan sartzea erabaki genuen».

Eskeerak bihotzetik
Hainbat material eraman zuten bidaiari buruko hainbat arropak, eskolako materiala eta sendagaik, batez ere idolo, gasak, etur oze-ganatu. Sendaketak egiten joan ziren bertako herrialde. Bevezia izan zen Burkina Fason gertatutako: «Kampin batetan gesunden eta bati sendatu eta gero, pikkanaka

batetik dozena bat arrautza eman zizkigun bere haurretan tratatze-gatik eta hori beraietarako aber-entzian handia zen. Gauza oso bereziak bihurtu genuen. Persona txuri batzuk hain joan eta bere beharrei kasu egiten harrigarri egiten zituzten. «Beraien alabak begina be-zala hartzen zigiten. Maitsuna ematen zigiten garena izateagatik».

Proiekzioak ematen ari dira, jendea sensibiltzatu eta Afrikaren errealtatea erakusteko asmoz.

mititzen zigiten eskertzak aso botezen zigiten. Bihotzez ematen zizkiguten askotan beraietarako beharrezkoak ziren gauzak. Ama

batetik dozena bat arrautza eman zizkigun bere haurretan tratatze-gatik eta hori beraietarako aber-entzian handia zen. Gauza oso bereziak bihurtu genuen. Persona txuri batzuk hain joan eta bere beharrei kasu egiten harrigarri egiten zituzten. «Beraien alabak begina be-zala hartzen zigiten. Maitsuna ematen zigiten garena izateagatik».

Proiekzioak ematen ari dira, jendea sensibiltzatu eta Afrikaren errealtatea erakusteko asmoz.

mititzen zigiten eskertzak aso botezen zigiten. Bihotzez ematen zizkiguten askotan beraietarako beharrezkoak ziren gauzak. Ama

E Elkarrizketa

THAMER BIRAWI ▶ Palestinar euskalduna

Tolosa » Gazan gertatzen ari denak mundu guztian eduki du oihartzuna. Herenegun, manifestazioa burutu zuten 200 lagunek gurean.

ASIER IMAZ

Israelek abenduaren 27an erasotu zuen Gaza. Orduz gero, etenaldirik gabeko sarraskia burutzen ari da bertan. Thamer Birawi (Palestina, Asira Ashamalia, 1960) Tolosa bizi den Palestinako semea da.

Non dago erasoaren arrazoia?

1993. urtean Osloko Akordioak sinatu ziren. Honen helburu estrategikoetako bat, arabiar hiriburuetan borrokatzeaz nekaturik zeuden buruzagi eta ofizialei nolabaiteko boterea eta errekonozimendua ematea izan zen, Arafat eta konpainiari. Hauek, armen bidez lortu ez zutena negoziazioaren bidez lortuko zutela sinestara zi nahi izan zuten; trampa horretan erori ziren. Akordioak hutsalak izan ziren. Alde batetik Israelek Palestinaren okupazioarekin aurrrera jarraitu zuten. Bestetik, Palestinan sortu zuten miliziak Israelgo poliziak egiten zuten lana burutzen zuten. Palestinar erakunde asko, herritarrak, Osloko Akordioaren aurka zeuden.

Eta Hamas nabarmetzen zen hauen artean.

Hamas ondo antolatuturik zegoen eta indartsua zen; proiektu politiko bat zuen. Ondorioz, Hamasen eta batez ere bere zuzendaritzaren aurka zuzendu zituzten indar guztiak. Gauzak horrela hauteskundeak iritsi ziren.

2007. urtean Hamasek bozken %65a lortu zuen. Nazioarteko begiraleen esanetan «hauteskunde garbiak» izan omen zirengainera. Israelek eta Ipar Ameriketako Estatu Batuek (EEBB) Hamasek hauteskundeetan porrot egingo zuela uste zuten. Baina aurkakoa gertatu zen, harridura sortuz Palestina kanpoan eta barnean. Orain arazo baten aurrean zeuden; Hamasek hauteskundeak irabazi ditu eta lege demokratikoen arabera boterea hartu behar du. Baina, Osloko Akordioaren aurka agertu zen hauteskundeetan eta jendeak bere babesa eman zion. Hamasekin amaitzea erabaki zuten orduan,



ASIER IMAZ

«Ezingo dute bakean bizitzeko daukagun nahia zapuztu»

«hautatutako hilketak», nazioarteko blokeoa... Hala eta guztiz ere, Hamasek Elkartasun Nazionalaren gobernu osoa zuten, Palestinar Aginte Nazionalarekin batera. Baina hauek ez zuten boterea Hamasen eskuetan utzi nahi. Pentsa, Barne Sailean sailburuak agindu behar du, baina Hamasen ordezkariak ez zuten poliziaren agintetik. Polizia eta defentsa zerbitzu guztiak Israelen babesean sortu baitziren, ejerzito okupatzailearen lana egiteko helburuarekin.

Hamasek boterea lortzeko estatu kolpea eman zuela ere esaten dute. Hauteskunde demokratikoa irabazi eta ondoren estatu kolpea. Harrigarria ezta?

Garai horretan, Hamasekin amaitzeko eta bere buruzagiak hiltzeko plana burutzen ari ziren CIAren Dayton generala tartean zela. Hamas honetaz jabetu egin zen eta zain egon beharrean Arafaten botere zentrua hartzea erabaki zuen Gazan. Honen ondorioz, Zisjordania Hamasekin lotura zuen oro espetxeratzen eta legez kanpo uz-

ten hasi zen Abbas eta Palestinako Aginte Nazionala. Baina Gazan ezin izan dute hori lortu, bertan antolakuntza eta egitura sendoa erakutsi baitu Hamasek.

Gaur egungo egoeraren aurretik, tartean 6 hilabeteko su etena ere egon zen.

Hau guztia gertatu ondoren, zer egin Hamasekin Gazan? Argi dago geratzen zitzairen aukera bakarra inguratzea eta itotzen saiatzea zela, horrela herritarrak Hamasen aurka altxatzeko. Horretarako mugak itxi zituzten baina hori ere ez zitzairen ongi irten. Hemendik gaur egungo egoera sortu zuten, genezidiko gerra hau. Aitzaki bezala Hamasek 6 hilabeteko su etena hautsi zuela esan zuten. Nazioarteko ikuskari ezberdinek ordea, behin eta berriz salatu dute Israelek su etenaosatzen zuten baldintzak ez dituela errespetatu. Beste gauza bat ere esan nahiko nuke, su etena Hamasek bakarrik ez duela eman amaitutzat. Palestinako erakunde ezberdinek ere erabaki berdina hartu baitute, 6 hilabete ho-

rietan gertatu ez baita su etena izan, Palestinaren aurkako aitortu gabeko gerra baizik.

Abenduaren 27a, Israel Gaza erasotzen hasten da airez, itsasoz eta lurrez.

Helburu ezberdinak ditu gerra gnozida honekin Israelek. Alde batetik erantzuteko botere sendoa duela erakutsi nahi du. Duela 30 edo 40 urte mundu musulmanaren aurrean zuen irudia berreskuratu nahi du; orduan zuen nagusitasun militarra mantentzen duela aieratu nahi du, Libanon Hezbolaren aurka jasotako porrotaren ondoren batez ere. Bestalde, Palestinan gelditzen diren erresistentzia indarrak gutxi direla aprobetuz, eurekin amaitu nahi du. Hemen, Jordania, Arabia Saudi eta Egiptoren babesa dauka. Izan ere, erresistentziaren bidez helburuak lortu daitezkeela erakusten baldin badute Palestinan, erregimen diktatorial filo-amerikar hauek euren burua arriskuan ikusten dute. Nahiz eta nazio gatazka izan Palestinakoa, erresistentzia

adibidetzat hartuko lukete arabiar herrialde horietako herritarrak, al daketa sozial eta ekonomikoak burutzeko.

Nola bizi duzu Tolosatik eraso?

Lau amorrur horien artean bizi naiz. Batetik, komunikabide arabiarrek esaten dutena jarraitzen dut, benetan han gertatzen denaren berri izateko. Bestetik, ezin ditut munduko, eta zehazki Europako, politikari nazkagarriak ikusi, ezta horien ipurgarbitzaileak diren komunikabideak ere, hauek Palestinan gertatzen dena estali nahi dute-eta. Era berean, ezintasunaren amorruekin bizi naiz, izan ere, ezin dut hemendik egin dezakeguna baino gehiago egin. Oso sentsazio zaila da, batzuetan geldiarazita ere sentitzen naiz, setiatuta; mundu ofizialak agertu duen isiltasun, konplizitate eta hipokrisia horiek setiatzen naute. Era berean, badakit, gure herriaren erresistentzia historia luzeak zerbait erakutsi digula eta azkenean Israelen gerra-makinariak — edota beste edozein potentziarenak — ezingo duelaguk bakean bizitzeko dugun nahia zapuztu. Euren eskubideen alde borrokan ari diren herri zein talde guztiei oinarritzko giza eskubideak defendagarriak direla eta babestu egin behar direla azaldu nahi diegu. Gizakiaren borondatea indar material guztiak baino garrantzitsuagoa eta indartsuagoa dela erakutsi dugu. Azken 11 egunetan etengabeko bonbardaketa basatia egin dute, baina honek ez du bere kausarekin sinistuta dagoen tamaina txilikiko giza talde baten borondatea hondatu. Munduarentzako ikasgaia da hau. Mundu guztiari esan nahi diot basakeria honen kontrako edozein hitz edo mugimendu oso garrantzitsua dela. Horregatik diot zerbait egiteko modua duen edozein pertsonak, taldek edo dena delakoak zerbait egin behar duela. Tolosako hipokresia instituzionalaren ordezkariak, euren burua demokratizatzen duten horiek guztiek, euren isiltasuna bonbak berak baino burrunbatsua eta basatiagoa dela esan nahi diet. Giza eskubideen eta herrien eskubideen aldekoak diren ala ez azaltzeko aukera zuten orain, baina euren isiltasunarekin ez direla demokratik utzi dute agerian.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **GPSa.** Oargi Mendi Elkarteak kide batek Garmin GPS bat galdu zuten hilaren 3an Larraitzko apartokalean. Norbaitek aurkitu badu 653 734 803 zenbakira dei dezala.

Tolosaldeko komunikazio enpresa batek KUDEATZAILEA behar du:

Enpresaren kudeaketaz arduratzeaz gain (finantzak, fakturazioa, arlo komertziala...), hainbat eragilekin izan beharreko harremanen kargu egingo den pertsona baten bila gabilza.

Eskatzen da:


- Kudeaketa-Administrazio arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritu izana eta eskualdea ondo ezagutzea.
- Euskara maila ona.
- Izaera dinamikoa, harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna.
- Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa dutenek curriculuma bidali, argazkiarekin, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora edo beste helbide honetara, urtarilaren 20a baino lehen.

JARDUNA S.L. Giza Baliabideak Saila - Martin Ugalde Kultur parkea - 20140 Andoain
Erreferentzia: THHK209

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Tolosako artista gazteek beraien obrak erakusteko helburuarekin eratu zen. HITZA

Tolosako bi gazteek arte urbanoa eta honekin erlazioa duten elementu guztiak (skateboard, graffiti, arropa...) erakutsiko eta sustatuko dituen galeria ireki dute Tolosako Kale Nagusian.

Arte urbanoaren espazioa

HARRIET BELLOSO

Skate-a, graffiti eta arte urbanoak etxe berri bat aurkitu dute Tolosako Kale Nagusian ireki berri den GKO Urban Art Gallery izena duen erakusketako espazioan. Ekimen berritzaile honen atzean herriko bi gazte aurkitzen dira, Garikoitz Murua eta Mexikar jatorria duen Kamilo, eta hasieratik helburua arte urbanoarekin erlazioa duten arlo guztiak sustatzea izan da: «Tolosa kulturalki hedatzen ari den herria da eta tankera honetako espazio bat beharrezkoa eta interesgarria dela ikusten dugu. Gainera, gazteek beraien ideiak eta obrak erakusteko toki berri bat behar zuten eta galeria honen bidez orain arte Tolosan ikusten ez ziren gauzak ikusteko aukera egongo da», azaltzen du Muruak.

Artearen aldeko apustua

Proiektu honen hastapenak 2007an kokatzen dira, Garikoitz eta Kamilok Tolosako gazteek beraien arte lanak erakusteko toki bat behar zutela ikusi zutenean. Tabernak eta kafetegiak museo bezala erabili dira kasu ugarietan, baina leku serioago baten beharra zegoen eta Bartzelonako, Londresko eta Berlingo galeriak eredu bezala hartu ziren espazio berri hau eratzeko. Ideiak eta helburuak ondo zehaztu ondoren lanari ekin zioten eta prozesuaren zehar Gabriel Maeztu eta Kimetz Martinez tolosarren aholkuak oso garrantzitsuak izan ziren hasierako ideia horiek ongi irudikatzeke. Obra guztiak beraien eskuekin egin zuten

eta espazioko filosofia jarraituz erabilitako material gehiena birziklagarria izan zen: «Ez genuen ohiko erakustoki edo museo bat egin nahi eta Europako galeria ugarietan oinarrituz kale itsura eman genion, kalearen luzapena izatea nahi dugulako», dio Muruak. Baimenekin eta obrekinez-bait arazo eduki eta gero, 2008ko abuztuan inaguratu zuten galeria berritzaile hau.

Galeria bultzatzeko proiektuak oihartzun ugari izan zuen Tolosan. Nestor Iriondo argazkilaria-ekin batera, eta galeria irekitzeko oraindik hilabete batzuk falta zirenean, uda hasieran arte urbanoa erakusteko balioa zuen erakusketak berezia eratu zuten. Alde Zaharreko kaleen zehar graffiti eta material birziklatuak nahasten zituzten koadroak ipini zituzten eta Kale Nagusiko galerian eraketa prozesu guztia azaltzen zuen argazki erakusketak ireki zuten. Ideia original honek primerako harrera izan zuen, gazteen artean batez ere, eta GKO iniziatibaren aurkezpena izan zen.

Hastapen zailak

Proiektu aitzindari guztietan gertatu ohi den bezala, hastapenak ez dira batere errazak izaten. «Hasieran jendeak proiektu suizida zela esaten zuen eta gazteen laguntza izan genuen soilik. Kultura aldetik aurrerapauso bat eman nahi bada gizarteak bere aurriritzi guztiak gaintutza behar ditu». Herrian hedakuntza motela izaten ari da, baina beste tokietan oso ezaguna bihurtu da galeria hau. Bilbon eta

Frantziako hiri batzuetan, adibidez, hemen aurkezten diren erakusketak oihartzun asko izan dute eta Frantziako galeria batek Txileko artista baten obrak erakusteko gonbidapena luzatu dio. Etorbizunean Tolosa Bilbok, Donostiak eta Frantziak osatzen duten arte urbano zirkuituan sartzea helburu garrantzitsu bat izango da.

Galeria ireki zenetik lan asko kanpora begira egin da, Tolosa eta bertako artistak alde batera utzi gabe. «Artista gazteak eta ideia originalak dituztenak sustatu nahi ditugu eta horretarako beraien obrak erakusteko toki bat eskaintzen diegu. 2009ko erakusketak egutegia beteta daukagu eta hori oso seinale ona da. Artista askok beraien obrak erakusteko proposamena egin digute baina ez dugu lekurik ez denborarik nahi ditugun erakusketak guztiak antolatzeke. Tamalez, hemengo jendeak ez du baloratzen egiten ari garen lana». Erakusketak guztiak hilabete bat irauten dute eta nahiz eta hauen iraupena luzatzeko proposamen ugari egon diren, datorren urtean luzapen hau mantendu egingo da. «Ez da denbora asko, baina hasieran erakusketak asko antolatzeke ideia genuen eta oraingoz ideia hori mantendu egingo dugu. Erakusketak antolatzeke eta egiteak lan handia suposatzen du, baina guk ilusio handi egiten ditugu».

Graffiti garrantzitsu

Graffiti iniziatiba honen funtsezko elementua da. Azken urteetan arte urbanoa zabaltzeko tresna

baliosua izan da, eta nahiz eta gizarterako sektore ugarietan estigmatizatuta dagoen, graffiti artista askok maila handiko museoetan erakutsi dituzte beraien obrak. Tolosan graffiti mugimenduak izugarriko hedapena izan du eta herriari antolatzen diren ekintza ugari esker (Sanjoanetako Graffiti Txapelketa, zenbait kaleetako partak graffiti egiteko prestatu eta abar) artea ulertzeko ikuspegi modernoak sartzeko balio izan dute.

Graffiti eta mota honetako arte lanak egiteko behar diren materialak, sprayak adibidez, galerian aurkituko dugun denda txikian saltzen dituzte. Bertan kamisetak eta skatearekin erlazioa duten produktuak ere eros daitezke eta hasiera batean galeria mantentzeko eta artistei ordaindu ahal izateko ireki da. Proiektu hau Garikoitz eta Kamiloren diruarekin eratu zen eta egun beraien soldatekin mantentzen da. «Hala ere, eta gauzak ondo joaten badira, etorkizunean autogestioan oinarritutako galeria izatea nahi dugu».

Etorbizunera begira

Nahiz eta krisi garaian bizi garen, Garikoitz Muruak baikor ikusten du etorkizuna: «Hastapenak gogorak izan ziren, baina orain lehen-dabiziko fruituak jasotzen hasi gara uste dut. Hala ere, Tolosan kultur mugimendu bat falta dela uste dugu. Kirolaren eta gastronomiaren aldeko jardunaldi asko antolatzen dituzte eta kultura alde batean gertatzen ari da. Gazteak dinamizatu behar dira eta musika edo artea sustatzen dituzten ekintza eta jarduerak gehiago antolatu behar dira. Guk hazia jarri dugu baina laguntzarik ez badugu jasotzen oso zaila izango da aurrera ateratzea».

2009 urte onuragarria izan daiteke galeria honentzat. Erakusketetako egutegia beteta edukitzeaz gain, GKO honetan banaketa egongo da, nahiz eta guztiak toki berean jarraituko duen. Alde batetik GKO denda egongo da eta bestetik GKO espazioa. Baina proiektu eta ideia hauek guztiak ezingo dira garatu jendearen partaidetzarik gabe. Hori dela eta, espazioko arduradunek herriko biztanle guztiei bertatik pasatzeko gonbidapena luzatzen diete, arte urbanoa ezagutzen hasteko eta Tolosako kultura zabaltzen jarraitzeko.



Galeria honetan Tolosan berriak diren proposamenak ikus daitezke. HITZA



1°
-2°

GOIZA ELURRA
ARRATS.OSTARTEAK
BEROENA 3°
HOTZENA -3°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Aduna.** Asvinenea Kultur Elkar-
teak III. Poltsikoko Antzerki Lehia-
keta antolatu du profesional zein
amateurrentzat. Informazioa eta
izen-ematea, www.asvinenea.com
webgunean.
- **Tolosaldea.** Abian da Sahararen
aldeko Euskal Karabana, *Piztu Itxa-*
ropena lelopean. Eskualdean, Tolo-
saldea Sahararekin elkar-
teara ari da
aurrera eramaten janari bilketa.
Arroza, lekaleak, pasta, hegaluzea
oliotan, sardinak oliotan, azukrea
eta konpresak utzi behar dira aur-
ten. Eskualdeko udaletxe nahiz su-
permerkatuetara eramanez ahal-
ko dira.
- **Tolosa.** Veleta-Aiz Orrayteak elkar-
teak 75 urte beteko ditu aurten.
Argazki zahar eta berrien erakus-
keta ari da prestatzen eta horretara-
rako materiala biltzen ari dira. Baz-
kideek, bazkide ohiek eta zerbait
dutenek, elkartera eramanez deza-
kete. Informazioa 655 738739
zenbakian.
- **Tolosa.** Eski irteera Formigalera
antolatu du Oargi mendiko elkar-
teak hilaren 17 eta 18rako. Informazioa
eta izen-ematea, 943 67 56 12,
688 69 86 42 zenbakietan edota
www.oargi.org webgunean.
- **Tolosa.** Alpino Uzturre elkar-
teak fondoko eski ikastaroa antolatu du
hilaren 17 eta 18rako 1995-98an
jaiotako haurrentzat. Irteera
07:15ean izango da eta itzulera
igande arratsaldean. Izen-ematea,
685 77 65 04 zenbakian edo alpi-
nousturre@begira.com helbidean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagu-
sia, 7. 943 67 06 48.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar
kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkariaren adierazitako esanien
eta iritzien erantzunik.



Urte berriari ongietorria emanez

LIZARTZA ■ Urte zaharra, hau da, 2008a atzean utzi dugu, eta 2009aren
lehen egunak igaro ditugu. Urte berriari ongietorria emateko modu ugari
izaten dira han eta hemen. Urte zahar gauean afariaren ostean, eta ha-
mabi kanpaiak entzun eta gero ospatzera, parranda egitera iritertzen dira

herriar gehienak. Askok, beraz, urtea ajearekin hasi ohi dute. Aje eta
guzti, edo ajerik gabe, askok mendira igoz hasi izaten dute urtea, eta,
Uzturre izaten da aukeretakoa bat. Lizartzan, esaterako, Otsabio elkar-
teak antolatuta, Otsabioko puntan ekin zioten urteari herriar ugariak. HITZA

A Agurrak



Urte askoan!

Eukene Bravo Larrarte (Anoeta).
11 muxu handi amatxo, J.J.,
eta aitonen partetik guapa!



Urte askoan!

Maddi. 5 urte.
Zorionak printzesa!
Etzeko guztien partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko
leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leiztan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

LIBURUA SALGAI

Salmenta:
Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko Hitzako bazkideak: 14 €
Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€	10 liburu 140€
-----------------	-------------------

- Salmenta puntuak:**
- Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leizaldeko
Hitzako bulegoetan,
 - Tolosako Aranburu, Babel
eta Elkar liburutegietan.
 - Ibarako Lurdes liburutegian.
 - Villabonako Basajaun liburutegian.



ARANZADI

galtzaundi

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza